

# Prentsa Aurrekoa

Kultura-Ohiturei, -Jardunbideei eta - Kontsumoari buruzko inkesta Euskal Herrian





## AURKEZPENA

- ✓ **Kultura-estatistika propioa izateko premia**, Euskal Herri osoko kultura-eskaintzaren eta -eskaeraren jarraipena egiteko asmoz
- ✓ **Lehen eragiketa estatistiko propioaren** emaitzak aurkezten dira: *Kultura-ohitura, -praktika eta -kontsumoa, 2007-2008* estatistika.
- ✓ **Euskal Herri osoko kultura-ohituren, -praktiken, -kontsumoen irudi zehaztua** eskaintzen du lehen aldiz.
- ✓ Gaur aurkezten ari garen ikerketa egiten laguntzaile izan dira Kulturaren Euskal Behatokia, **Euskal Kultur Erakundea** –EKE– eta **Eusko Ikaskuntza**.



## INKESTAREN EZAUGARRIAK

- ✓ **Estatistika ofiziala** da eta bost urtean behin egingo den eragiketa honek estatistika-saila martxan jartzea dakar. Kulturaren Euskal Behatokiko Estatistika eta Ikerketa Kulturalen Bildumari hasiera ematen dio.
- ✓ Oinarrizko kontzeptuak:
  - **Ohitura kulturalak:** herritarren portaera produktu eta zerbitzu kultural jakin batzuekiko
  - **Jarduera kulturalak:** denbora-epe jakin bateko kultura-kontsumoaren maiztasuna eta intentsitatea
- ✓ **Euskal Herri osoko hamabost urtetik gorako 6.785 laguneko** lagin adierazgarria
- ✓ Euskal Herriko eskaeraren ikuspegi kuantitatiboa eskaintzen du: **Oinarri sendo horrek geroko balorazio kualitatibo batzuk behar ditu.**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA




# **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA**



## ALDERAKETA EUROPAREKIN

- ✓ **Liburuen irakurketa eta zinemara joatea: EAEren aldeko emaitzak, Europarekiko eta baita Espainiarekiko alderaketan**
- ✓ **Musika-kontzertuetara joateko ohiturari dagokionez, ez dago ia alderik EAEko eta Europako datuen artean**
- ✓ **Antzerkia ikustera eta liburutegietara joateko ohitura, Europar batezbestekoaren azpitik baina Espainiaren gainetik**

EAEko eta EUOPAKo kultura-adierazleen alderaketa (%)



(1) Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ohiturei, -jardunbideei eta kontsumoari buruzko inkesta 2007-2008, Kulturaren Euskal Behatokia

(2) Iturria: Eurobarometroa 67.1, Eurostat, 2007


(3) Iturria: Espainiako ohitura eta jarduera kulturalen inkesta 2006-2007, Kultura Ministerioa



## OHITURA KULTURALAK EAEn

- ✓ Homogeneotasun handia dago EAeko hiru lurralde historikoen artean.
- ✓ Aipagarria da Araban aisia-liburuen irakurketari eta museoetara joateari dagokienez lortutako emaitzak


Pertsonak, EAEn azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%)





# OHITURA KULTURALAK LURRALDEKA

- ✓ Arabako biztanleek agertu dute joera handiena aztertutako jarduera kultural gehienetarako.
- ✓ Bizkaia nabarmentzen da opera-ikuskizunetara joatearen alorrean
- ✓ Gipuzkoa, musika-kontzertuetara eta dantza-emanaldietara joatearen alorrean nabarmentzen da






# IRAKURKETA

✓%56k baino gehiagok liburu bat irakurri du aisialdian, azken hiruhilekoan.

✓Estatuko irakurketa-ohituren batezbestekoarekin (% 42,8) alderatuta, emaitza % 13,2 hobe da.

Pertsonak, liburuak irakurtzeko ohituraren arabera (%)






## IRAKURKETA

- ✓ **EAEko herritarren erdiak baino gehiagok egunkariak irakurtzen ditu egunero edo ia egunero (%54,8).**
- ✓ **Estatuko batezbestekotik (% 37,3) 16 puntura eta Europakotik (% 46) 8 puntura jartzen gaitu.**

Pertsonak, egunkariak eta aldizkariak irakurtzeko ohituraren arabera (%)






## IRAKURKETA

✓ **Liburuen ohiko irakurle elebidunen %35,7k euskarazko liburuak irakurri dituzte.**

Pertsona elebidunak, euskarazko liburuaren irakurketaren eta Lurralde Historikoaren arabera (%)




Oinarria: Azken hiruhilekoan aisialdiari, lanari edo ikasketei lotutako liburuaren bat irakurri duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %66,9



## MUSEOAK ETA ARTE-ZENTROAK

Pertsonak, museoetara, arte-galerietara eta erakusketetara joateko ohituraren arabera (%)




- ✓ **10 biztanletik 4 museoren batera joan dira azken urtean (Europako ehunekoaren antzekoa).**
- ✓ **Erakusketen eta arte-galerien kasuan %21,7ra jaisten da ehunekoa.**



## MUSIKA

- ✓ Biztanleen zaletasunik gogokoena.
- ✓ 10 biztanletik 7k baino gehiagok (%73,2) musika kontsumitzeko ohitura dute.
- ✓ 15 eta 24 urte arteko gazteen %85k musika entzuteko ohitura dute.






## MUSIKA

- ✓ **Herritarren %37,7 zuzeneko musika-kontzertuetara joan dira azken urtean**
- ✓ **2 kontzertutara joan dira, batez beste.**

Kontzertuetara joateko ohitura duten pertsonak, azken hiruhilekoko kontzertu-kopuruaren arabera (%)




Oinarria: Musika-kontzertuetara joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan kontzertuetara joan diren pertsonak, biztanleen %16,6)



## MUSIKA

- ✓ **Herritar elebidunek euskal musika asko erosten dute.**
- ✓ **Musika erosten duten herritar elebidunen %62,5ek euskal musika erosten dute.**

Pertsona elebidunak, euskal musikaren erosketen eta Lurralde Historikoaren arabera (%)




Oinarria: Noizbait musika erosi duten pertsona elebidunak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanle elebidunen %55,3



## IKUS-ENTZUNEZKOAK

- ✓ **Ikusle bakoitzak 2,4 ordu eguneko ematen du telebista ikusten. Estatuan baino apur bat gutxiago.**
- ✓ **Telebistako 10 ikusle elebidunetik 7k baino gehixeagok euskarazko telebista ikusten dute.**

Telebista ikusten emandako ordu-kopurua, Lurralde Historikoaren arabera (batezbestekoa)




Oinarria: Telebista ikusteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %92,3



## IKUS-ENTZUNEZKOAK

- ✓ **Herritarren hiru laurdenek irratia entzuteko ohitura dute.**
- ✓ **Lanegunetan egunean 2,5 ordu igarotzen dituzten horretan.**

Irratia entzuten emandako ordu-kopurua, Lurralde Historikoaren arabera (batezbestekoa)




Oinarria: Irratia entzuteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %76,9



## ZINEMA

- ✓ **Biztanleriaren %40k zinema-aretoetara joateko ohitura dute**
- ✓ **Gizonezkoak gehiago dira emakumezkoak baino (% 42,2 gizonezkoak dira, eta % 37,9 emakumezkoak).**
- ✓ **Zinemara joateko ohitura handiagoa da herri handietan**

Pertsonak, zinemara joateko ohituraren arabera (%)






## ARTE ESZENIKOAK ETA BERTSOLARITZA



- ✓ **EAEko herritarrak gehiago joaten dira ikuskizun-mota guztietara Estatukoak baino.**

Pertsonak, arte eszenikoetarako bertaratzearen arabera. EAEren eta Espainiaren alderaketa (%)






# ARTE ESZENIKOAK ETA BERTSOLARITZA



Pertsona elebidunak, bertsolari-tza-emanaldietara joateko ohituraren arabera (%)



- ✓ **Herritar elebidunen %18,1 zuzeneko bertso-saio batean izan dira azken urtean, eta %8,7 azken hiruhilekoan.**
- ✓ **Joateko ohitura dutenek zaletasuna agertu dute, batez beste 2,3 aldiz joan baitira azken hiruhilekoan.**
- ✓ **Bertsozaleen profilak : gizonezkoak eta, batez ere, gazteak.**
- ✓ **Jarraitzaile gehien Gipuzkoan ditu eta nabarmenagoa da herri txikietan.**




# NAFARROAKO FORU ERKIDEGOA

## ALDERAKETA EUROPAREKIN

- ✓ **Europako eta Estatuko batezbestekoaren gaintik liburuen irakurketari eta kontzertuetara, zinemara eta liburutegietara joateari dagokionez.**
- ✓ **Antzerkia ikustera joateari dagokionez, Europako batezbestekoaren azpitik dago**

NAFARROAko eta EUROPAko kultura-adierazleen alderaketa (%)



(1) Iturria: Nafarroako Foru Erkidegoko kultura -ohituri, -jardunbideei eta kontsumoari buruzko inkesta 2007-2008, Kulturaren Euskal Behatokia


(2) Iturria: Eurobarometroa 67.1, Eurostat, 2007

(3) Iturria: Espainiako ohitura eta jardura kulturalen inkesta 2006-2007, Kultura Ministerioa

# OHITURA KULTURALAK EREMU GEOGRAFIKOAREN ARABERA



- ✓ **Nafarroako hiriburuan dago kultura-jarduera guztietarako ohitura-mailarik handiena, bertsolaritza- eta dantza-emanaldietara joateko ohitura izan ezik.**






## IRAKURKETA

- ✓ **%58,9k aisialdian liburu bat irakurri du azken hiruhilekoan.**
- ✓ **Espainiako batezbestekoa baino 15 puntu gehiago ditu, eta hilean 1,7 liburuko batezbestekoa.**


Pertsonak, liburuak irakurtzeko ohituraren arabera (%)






## IRAKURKETA

### NAFARROA



- ✓ Azken hiruhilekoan irakurri izan duten biztanle elebidunen %45,4k esan dute euskarazko liburuak irakurri dituztela.

Pertsona elebidunak, euskarazko liburuen irakurketaren eta adin-taldearen arabera (%)




Oinarria: Azken hiruhilekoan aisialdiari, lanari edo ikasketei lotutako liburuen bat irakurri duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %70,8



## MUSIKA

- ✓ Musika entzutea zabaldua dago jendearen ohituretan. %76,1k maiz entzuten dute musika, astean 10,2 ordu batez beste.


Pertsonak, musika entzuteko ohituraren arabera (%)



## MUSIKA

✓ Biztanle elebidunen % 66,9k erosten dute euskal musika.

Pertsona elebidunak, euskal musikaren erosketen eta eremu geografikoaren arabera (%)




Oinarria: Noizbait musika erosi duten pertsona elebidunak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanle elebidunen %55,9

## IKUS-ENTZUNEZKOAK

- ✓ **Telebistaren asteko kontsumoa 17,1 ordukoa da (2,4 ordu lanegunetan), eta biztanle elebidunen % 85ek maiz ikusten dute euskarazko telebista.**
- ✓ **Lanegunetan, talde horretakoek telebista ikusten ematen duten denboraren % 40 euskarazko telebista ikusten ematen dute.**

Telebista ikusten emandako ordu-kopurua, hizkuntza-gaitasunaren arabera (batezbestekoa)




Oinarria: Telebista ikusteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %93,4



- ✓ **Hiru kultura-jarduera horietako (antzerkiko, lirikako eta dantzako) Nafarroako ehunekoak handiagoak dira Espainiakoak baino.**

Pertsonak, arte eszenikoetarako bertaratzearen arabera. Nafarroaren eta Espainiaren alderaketa (%)




Iturriak: Eusko Jautaritzaren Nafarroako Foru Erkidegoko kultura-ohiturei, -jardunbideei eta -kontsumoari buruzko inkesta, 2007-2008 eta Espainiako Kultura Ministerioaren Espainiako ohitura eta jarduera kulturalen inkestaren arabera egina



- ✓ **Bertsolaritzari dagokionez, biztanle elebidunen % 18,1 joan dira saioen batera azken urtebetean.**

Pertsona elebidunak, bertsolaritza-emanaldietara joateko ohituraren arabera (%)






# IPAR EUSKAL HERRIA



## EUROPAREKIN ALDERAKETA



(1) Iturria: Kultur ohiturak, jarduerak eta kontsumoa Ipar Euskal Herrian 2007-2008, Kulturaren Euskal Behatokia

(2) Iturria: Eurobarometroa 67.1, Eurostat, 2007

(3) Iturria: Mini chiffres clés 2008, Ministère de la Culture et de la Communication.


- ✓ **Ipar Euskal Herriko biztanleriak Europar Batasunekoak baino liburu gehiago irakurtzen du. Liburutegietara gutxiago joaten da**
- ✓ **Ipar Euskal Herrian eta Estatu Frantsesean kontzertuetara eta antzerkira ehuneko berdintsua**
- ✓ **Ipar Euskal Herrian zinemara joateko batz bertzekoa Europakoa baino hiru puntu handiagoa eta Frantziakoa baino zazpi puntu handiagoa**



## KULTUR OHITURAK

- ✓ **Musika entzutea, liburuak irakurtzea eta zinemara joatea dira kultur ohitura hedatuena**
- ✓ **Azken urtean ia 10etik 9k entzun du musika**
- ✓ **Biztanleriaren %74k irakurri ditu liburuak**
- ✓ **Biztanleriaren %54,2 joan da zinemara**

Pertsonak kultur jarduerak gauzatzeko ohituraren arabera, azken urtean, Ipar Euskal Herrian (%)






## KULTUR OHITURAK

---

- ✓ **Orokorki kultur ohiturak berdintsuak dira lurralde batean eta bertzean**
- ✓ **Alde nagusiak kontzertu, dantza-emanaldi eta opera-ikuskitzetara joateko joeran daude**
- ✓ **Zuberoako ehunekorik handienak: musika, irakurketa, zinema, dantza-ikuskitzak eta opera (pastoralak)**
- ✓ **Behe Nafarroako ehunekorik handienak: musika entzutea, irakurketa eta zinema**
- ✓ **Lapurdin ere musikak, zinemak eta irakurketak dituzte kultura-konsumoko baliorik handienak**



## KULTUR OHITURAK






## IRAKURKETA

- ✓ Ipar Euskal Herriko biztanleriaren erdiak baino gehiagok dute irakurtzeko ohitura (%56,4).
- ✓ Irakurtzeko ohitura duen biztanleriak hilean 2,3 liburu batez bertze

Pertsonak liburuak irakurtzeko ohituraren arabera (%)






## IRAKURKETA


### ✓ Elebidunen ia %40k euskaraz irakurtzen dute

Elebidunak euskarazko liburuen irakurketaren arabera, lurraldeka (%)

#### IPAR EUSKAL HERRIA



■ Bai ■ Ez




Oinarria: Aisiarekin, lanarekin edo ikasketekin lotutako liburuak irakurri dituzten elebidunak azken hiruhilekoan, elebidunen %60,3



## IRAKURKETA

✓ Biztanleriaren erdiak baino gehiagok egunkariak irakurtzeko ohitura du, eta hamarretik lauk aldizkariak

. Pertsonak egunkariak eta aldizkariak irakurtzeko ohituraren arabera (%)






## IRAKURKETA

✓%21ak du liburutegietara joateko ohitura

Pertsonak liburutegira/mediatekara joaten diren maiztasunaren arabera (%)






## MUSIKA

- ✓ Biztanleriaren %85,3k musika entzun ohi du (%67,3k egunero eta %18,2k astero)

Pertsonak musika entzuteko ohituraren arabera (%)




- ✓ 25 eta 34 urte artekoen % 99,1ek maiz entzuten du musika



## MUSIKA

- ✓ Irratia da musika entzuteko bide erabiliena
- ✓ Gazteenen kasuan 15-25 urte bitartekoek ordenagailu bidez %54,1ek

Musika entzun ohi dutenak erabiltzen dituzten medioen eta adin-tartearen arabera (erantzun bat baino gehiago) (%)




Oinarria: Musika entzun ohi dutenak (biztanleriaen %85,3k egunero, ia egunero edo astero entzuten du musika)



## MUSIKA

- ✓ **Elebidunek euskal musika asko entzuten dute adin talde guztietan**

Elebidunak euskal musika entzuteko ohituraren arabera, lurraldeka (%)




Oinarria: Elebidunen %77,7k entzun ohi du euskal musika



## MUSIKA

- ✓ **Musika erosi duten elebidunen erdiak baino gehiagok euskal musika erosi dute**

Elebidunak euskal musika erosteko ohituraren arabera, lurraldeka (%)




Oinarria: Biztanleria elebidunaren %59,4k erosi du noizbait musika CD edo bertzelako euskarri batean



## MUSIKA

- ✓ **Azken hiruhilekoan kontzertuetara joandako elebidunen %86,9 euskal musika kontzertuetara joan dira**

Euskal musikako kontzertuetara joaten diren elebidunak, lurraldeka (%)






## TAULA GAINEKO IKUSKIZUNAK

- ✓ **Azken urtean antzerkia ikustera joan den biztanleria elebidunaren %88,8 euskarazko antzerkia ikustera joan da. Lapurdin %95,5.**

Elebidunak azken urtean ikusitako euskarazko taula gaineko ikuskizunen arabera, lurraldeka (%)




Oinarria: Elebidunen %25,5 joan da antzerki-ikuskitara azken urtean



- ✓ **Hamar biztanletatik lauk parte hartzen du kultur jardueretan**
- ✓ **Behe Nafarroan biztanleriaren ia erdiak hartzen du parte (%49,1), Lapurdin %42 eta Zuberoan %38,2k.**

Pertsonak kultur jardueretan izandako parte-hartzearen arabera, azken urtean, lurraldeka (%)





# EUSKAL HERRIA

## EMAITZA NAGUSIAK

## ALDERAKETA EUROPAREKIN

**Europako batezbestekoaren gainetik** dauden kultura-ohiturak:

- ✓ Europako batezbestekoak baino pixka bat handiagoak dira Euskal Herrian **musika-kontzertuetara** (Euskal Herrian % 38,2 eta EBn % 37) **eta zinemara** (Euskal Herrian % 54,8 eta EBn % 51) **joaten direnak**.
- ✓ Euskal Herriko **irakurketa-ohituren batezbestekoak** ere 27 estatuko Europakoen gainetik daude. EBko biztanleen % 71k irakurri dute libururen bat azken urtebetean, Euskal Herrian, berriz, biztanleen % 74,1ek.
- ✓ **Museoetara joaten direnen ehunekoa** ere Europakoa baino 2,7 puntu handiagoa da (Euskal Herrian % 43,7 eta Europan % 41).
- ✓ **Eguneroko prentsaren irakurketan**, berriz, Euskal Herriko batezbestekoa Europakoa baino 11,1 puntu handiagoa da (Euskal Herrian % 57,1ek irakurtzen dute, eta Europan, berriz, % 46k).



## ALDERAKETA EUROPAREKIN

---


**Europako batezbestekoaren azpitik** dauden kultura-ohiturak:

✓ **Liburutegietara joaten direnen portzentajea**, berriz, handiagoa da Europan (biztanleen % 35) Euskal Herrian baino (% 31,4).

✓ **Arte eszenikoetan**, berriz, Euskal Herrian azken urtebetean ikuskizunen batera joan direnen ehunekoa (% 21,9) Europakoa baino pixka bat txikiagoa da (% 32).

## ALDERAKETA EUROPAREKIN

### Euskal Herriko eta Europako kultura adierazleen alderaketa (%)



(1) Iturria: Kultura-ohiturei, -jardunbideei eta -kontsumoari buruzko inkesta 2007-2008, Kulturaren Euskal Behatokia


(2) Iturria: Eurobarómetro 67.1. Eurostat, 2007




✓15 eta 24 urte arteko hamar gaztetik zazpi erabiltzen dute Internet kultura-jardueretarako.

## Kultura-kontsumorako Internet erabiltzen duten pertsonak

### EUSKAL HERRIA




■ Erabiltzen dute  
■ Ez dute erabiltzen



# INTERNET ETA EUSKARAZKO KONTSUMOA



✓ Internet erabiltzeko ohitura duten elebidunen erdiek (% 51,3k) euskarazko edukiak erabiltzen dituzte.




## EUSKAL HERRIA

Web guneetara sartzeta eta dokumentazioa eskuratzea	%37,4
Musikazko edukiak	%22,2
Blog-ak, irakurri eta liburuak deskargatzea	%7,2
Foroetan sartzeta	%6,1



Euskal Herriko eremu soziopolitikoaren **barne-konparaketa** eginez gero, agerian gelditzen da,

- ✓ **Ipar Euskal Herriak** portzentaje handiagoa duela **musikan, irakurketan eta irratia entzutean**
- ✓ **Nafarroak, kontzertuetan, zineman eta liburutegietan**
- ✓ **EAEk, museoetan eta prentsaren irakurketan**





# KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA